

JAUNGOIKO - ZALE'REN IDAZTIJAK

Porziunkula'ko Nekazka

(PARKAPENA)

OZERIN JAUREGI ABAK IDATZI EBANETIK

MANTEROLA'TAR GABIREL ABADIAK

EUZKERALDUTA



1924

JAUNGOIKO - ZALE'REN IRARKOLAN

Zornotza - Amorebieta

Nihil obstat

Dr. Petrus de Menchaca

Imprimatur

Victoriæ 25 Januarii 1921

Gubernator Eccus. (s. p).

Dr. Joseph Leontius, O. de Tarate



Porziunkula'ko Nekazka (Parkamena)

I

Porziunkula'ko elexea

Asis'tik ordu bete baño lenago, Umbria'ko zelaigune ederean, Perusa ta Foligno'n bitartean Patzezkaren Ama ta Buru dan Andera Maria Gotzonetakoen (aingerutakoen) txadona (elexa) dago.

127 neurkin (metro) luze, 64 zabal eta 87 garaidun da. Ogei kapila baño geyago daukoz, ta txadonan erdian, Pantzezka zoriontsuaren aldian lez, Porziunkula'ko elexatxo agiri da.

Ango idazkunak irakurri ta ango ormak laztantzean, Jesus ta Maria'k antxe bertan deun Pantzezka'ri itz egin eutsoela gogorata, ez da biotz-ikututa geratzen eztanik. An inor ezta lotsa negar egiteko, antxe

ikusi genduzan katoliko ta protestanteak, gizon eta emakumak, samurtasunez ta erazkunez euren begietara urteten ziran malkoak guztien aurrean leortzen. Berberau ikusi gendun andik urean, Pantzezka deuna maitasunezko zauriakaz il zan gelatxotan. Ta Bonaventura deunak diñonez, ez gotzonak (aingeruak) bakañik, baita berak maite-maite zituan txoritsuak, euren abiak itxita etofi ziran gau atan bere gelatxora abesti gozoakaz euren lagunari azken agurá egiteko.

¡Porziunkula'ko oroipenak benetan ederak dira! ¡An isuriten diran malkoak benetan atsegintsuak dira! Pantzezka deuna arantza artean etxunda, loraz bete zan sasia antxe dago, Kalare deuna konorgetu zan tokia, ta otoitz egiten eban atx zuloa be antxe dagoz, ta ikusita dirudi oraindiño eltzen dala norbere belarrietara Josu'ren nekeakaitik negaiez Pantzezka zoriontsuak esaten ebazan itz samuren oyarzuna. «Maitetasun utsa ez dabe maite! ¡Maitetasun utsa ez dabe maite!» Beste batzuetan bere maitetasunezko espa onek entzuten diriala dirudi: «¡Neure Jesus ¿zergaitik Zu guru-

tzatuta ta ni ez nago? ¡Neure Jaungoikua!
¡Zu nor zara ta ni nor naz?» Ta beti dirudi
itz onexek entzuten direala: «¡neure Jaun-
goikoa ta gauza guztiak!»

II

Pantzezka'k Asis'ko Nekazka eskatu ta lortuten dau.

Pantzezka deunaren biotza ére ta kis-
kaldu ta urtuten da Josu'ren maitetasun
arigariaz ta gizonen gaizkatzeaz gogora-
tuta. Jaungoikoa'ren maitetasunagaitik ta
obendijoak Jaungoiko'aganatzearen bere
bizitza ta anei (mila) bizitza be pozik
emongo ebazan, al izan ezkeru. Gau baten
onango oldozpenetan egoala, Gotzon (ain-
geru) bat, agertu yakon eta agindu eutson
Porziunkula'ko kapilara joateko, Jesus
ta Maria zain eukozala-ta (1). Txadonera

(1) Diñogun guztiau Teobaldo ta Conrado, XIV'garén
gizaldiaren asieran Asis'ko gotzain izan ziranak idatzi
ebazan agirietatik laburki artuta dago. Guk Sabatier Paul
protestanteen idaztitik-Sa'era. LXXII ta abar. Lenengo-
tako edestiak labur eta eka'agoak dira baña Parkamenen
bayezpenatzaz bat-batean dagoz.

eldu ta auzpaztu zaneko Pantzezka, Josu'k esan eutson: «Pantzezka; gizonak gaizkatzeko daukazuzan gurariak ain gartsuak diran ezkerro, ta eurak Jaungoiko' aganatzearen ainbeste negar, otoi, aratuzte, barau, zurdatz, neke ta laztasun egin dozuzan ezkerro, gura dozuna eskatu egidazu».

Pantzezka'k itzalez ta apalik eta lotsatuta esan eutson: «Jaungoiko Jauna ta erukiaren Aita: zeure odol edefaren irabaziaren eskatzen dautzut; txadon onetan garbatuta, autortuta, sartzen diran kista' gustiak, euren oben-nekeen parkamen osoa, ugutza-deuna artu eben egunean lez, lortu dagiela. Ta eskar au jaristeko zeure Ama Maria zoriontsua bitarteko ipinten dot». Geure Ama Maria'k agertu eutson bere Semeari-Pantzezka'n eskaria ta gure Errokle maitiak erantzun eutson Pantzezka'ri: «Pantzezka, eskar andia da eskatu dozuna; baña neure Ama dontsuaren bitartekotasunaz gauza andiagoak be opa izan leiz zeure maitetasunak. Nik, eskatu dautzun nekazka (parkamena) emoten dautzut; baña Roma'ko Doipurua'gana

(Aita Santua) yoan zaitezala gura dot, neure Ordolariaren baimenari zor yakon itzala mundutarak ezagutu dayen». Au esanda, ikuspen zerutara estaldu zan abesti eresitsuen artean.

III

Doipuruak Porziunkula'ko Nekazka onesten dau.

Ufengo egunean egun-uratu zanerako, joan zan Pantzezka Perusa'ra Maseo Aba lagun ebalá. Uri onetan egoan, garai artan Doipuru zan Honorio III'gna. Beragana joan eta apaltasun eta itzal andiaz esan eutson: «Aita dontsua: Asis ondoan Ama Neskutza'ri opalduta egoan basatxaunoa beriztu dot. Serapindaren Gopatza (ordea) Maria'ren besoetan yayo zan, eta gura neunke Gotzonetako Ama Maria'ren ele-xatxoa bere seaska lez izatea, ta oregaitik eskatzen dautzut elexa onentzat Parkamen oso bat ezetako egin-bear barik».

Doipuruak erantzun eutson etzala oitura nekazkarik egiñen on edo ukar (limosna) barik emotea; ta itandu eutson:

«Nekazka oso ta egin bear bako ori çenbat urterako gura dozu?» — Pantzezka'k erantzun eutson: «Doipuru deuna; nik ez dodaz eskatzen urteak, gogoak baño. Gogoak (arimak), Doipuru deuna, gogopak; Porziunkula'ko kapilau ikertuta ugu-tza egunean lez garbi geratzeko gogoak gura dodaz».

Doipuruak erantzun eutson: «Pantzezka, eskari au Roma'n oi eztana ta zaila da bayezteko». Pantzezka'k erantzun eutson: «Nik ba, Doipuru deuna, neure-neurez ez dot ezer eskatzen, Jesus ta Maria'k bialdu nabe eskar au zeuri eskatzeko; nik ez dagitzut eurak esan daustiena gogoratu baño». Biotz bañuan sartu yakozan Doipuruari Pantzezka'n itzok ta, goi-argiz igituta, iru bidar esan eban: «Atsegin yat, atsegin yat, Pantzezka, atsegin yat eskatzen daustazuna emotea».

Bertan egozan Jazkordunak (Kardenalak) eskar eta legazka geyegi zirala ta, Roma ta Jerusalem'en kaltez zala ta, parkamen onen aitzin (kontra) jagi ziran. Baña Doipurua'k sendetsi eban esan ebana, urtean egun baten bakarrik emoten ebala

parkamen-au. Pantzezka gur eginda urten zan Doipuruaren gelatik. Doipuruak deitu eutson: «Jaungoikoa'ren gizontxu ori; ¿nora zoaz? Nekazka emonda dagola ba-yezteko; ¿ze agiri daroazu? Pantzezka'k erantzun eutson: «Doipuru deuna, naiko naiko da zeure itza. Goiko gauza ba-da, Jaungoikoa'ak ludi (mundu) guztian za-balduko dau, Miren Neskutsa (Birjiña) agiria izango da, Jesu-Kisto latzinaldaria (notarioa), ta Porziunkula'n jazo zana ikusi eben gotzonak ziñaldari (testigu) izan daitezala». (Vide Breviar. Rom-Serapn).

Perusa'tik Asis'eruntz joyala, Kollado eritxon zelaira elduki, Jaungoikoa'ganako maitasun ezin geyagokoa sortu yakon biotzean. Aldendu zan bere lagun Maseo Abagandik ta bere biotza nasaitu zan negar egin eta eskerak Jauna'ri eginda ain eskar andien ordezt. Usteridunen (lepra) eixe baten lo egin eban, eta ufengo goxean agertu eutson bere lagunari Jauna'k esan eutsola bere ordeztakoak lufean onetsi eban parkamena donokian (zeruan) be sendetsita egoala.

IV

Lařosaen Nekazka

Asis'ko edo Porziunkula'ko Nekazkari «Lařosaen Nekazka» be deitzen dautsie, jazokun onegaitik:

Pantzezka'k jakin gura eban zein izango ete zan Nekazkau irabazteko eguna; ta onetan oldoztuten egoala, txerēnak bururatu eutson, oben-neke geyegi egiten ebala, ta osasuna zaintzen arduratu bear zala, luzaroago ta obeto bere Gopatz edo ordena zaintzeko. Éruki - izun au, txerēnaren zirikada zala ezagutu ebanian, soñekoak kendu ta sasi - arantzartean etxun zan, gorputz guztia odoldu arteraño. Bat-batean sasia lora edeřez bete zan, ta gaurko egunez be, arantza orde, lorak emoten ditu, ořiak odol setatxuak dituela. Zorion - agurtu eben Gotzonak gurenda edeřagaitik ta esan eutsoen: «Jagi zaite, Pantzezka, sasi ořetatik eta zatoz geugaz txadonara, Jesus ta bere Ama guztiz garbia zain daukozuz-eta». Urten zan deuna lora artetik soñeko zuri edeř - edeřagaz jantzita; artu ebazan amabi lora zuri eta

beste ainbeste gofiak, eta joan zan Porziunkula'ko elexatxura. Donokia (zerua) zirudien. Jesus ta Maria argiz beterik; aneika, milaka, gotzonak lagun ebazala bertan egozan. Auzpaztu zan Pantzezka ta esan eutson Josu'ri «Jauna'ren Jauna; Zeure Ama zorientsuaren bitartez eskatzen dautzut Zeuk emon zeunstan Nekazka irabazteko eguna izentau dagistazula» Jesus'ek erantzun eutson: «Pantzezka, neure Ama gozoaŕen eskatzen dozuna emoten dautzut. Izan daitela ba, neure bidali Pedro Herodes'ek espetxeratu ta alatzetz (mirariz) estuntzak apurtu ta azke izan zan eguna». «Ta Jauna—itandu eutson Pantzezka'k—zeure guraria gizonari ¿zelan agertuko dautsiet?». «Ori neure ardurapean dago—erantzun eutson Jauna'k—zuk agertuyozu neure Ordolariari neure guraria; ziñalbentzat sasiaŕ urten daben lora batzuk eroayozuz ta neuk igituko dot bere biotza». Au esanda gotzonak TE DEUM abestuten asi ziran eta ikuspena estaldu zan, pozaren - pozak Pantzezka deuna konorgetuta izten ebala.

V

Jakin-erazoten da Porziunkula'ko Nekazka.

Pantzezka Romaratu zan lagun batzuz, azaldu eutson Doipuruari jazo zan guztia ta erakutsi eutsozan larosa goñi ta zuriak neguaren erdian. Doipuruak sendetsi eban Nekazka irabasteko eguna «*toties quoties*» Porziunkula'ko txadona (elexa) ikertzen zan bakotxean Agoñila'ko lenengo eguneko *vesperetarik* urengo eguneko gaberarte; orain baña irabazi daike aurreguneko eguberdiko amabietarik urengo eguneko gaberdiko amabietarte.

Elexatxoa onetsi ta Nekazka jakin-erazteko egin ziran jai atara saspì Gotzain (Obispo) etoñi ziran. Pantzezka'k itz egin eban, jazo zan guztia azaldu ta Nekazka oso ta betikoa ukar (limosna) edo egiñen on barik iragarteko. Gotzainak ba-ekien Jazkordunak etzirala eretxi aetakoak eta amar urterako bakañik iragartea erabagi eben. Asis'ko Gotzainña igo zan txoniztokira ta, berak gure ez

ebala, betiko Nekazka iragañi eban. Igo zan beste Gotzain bat Asis'koen aurka zerbait esateko ta onek be, berak nai ez da, Nekazka betiko iragañi eban. Igo ziran irugañena ta gero laugañena ta azkenez danak saspiraño ta guztiak esan eben Nekazka betiko zala, argi egoan ba gauza ori, ainbeste alatz ikusi ezkerro.

Kepa (Pedro) Salfano elizkizun onetan izan zan, ta saspi Gotzaiñak be ikusi ebazan (Sabatier LIV) ta diño Pantzezka deunari Nekazka iragar-torduan itz onek entzun eutsozala, pozañen ziñoala: «Nik guztiak zeruratu gura dodaz. ¡Donokira ba danok, zerura, atsegintokira!»

Nekazka onen indaia alatz (mirari) askogaz agertu da. Bat bakañik edestuko dot. Emakuma bat il zan Asis'en Porziunkula'ko txaunoa (kapilea) Agoñila'ko 2'an ikertu ta laster. Lagun batzuri agertu yaken bere gogoa, ta esan eutsen zerura zuzen yoan zala, Garbitokia igaro barik, Porziunkula'ko Nekazkagaz oben - neke guztiak ordaindu ta bere gogoa ugutzau (batiatu) eben egunean lez garbi geratu zalako.

VI

Nekazkau irabasteko egikixunak.

Pantzezka'ren lekaide - lekaime elextan, Gopatz (ordena) oneri batuta dagozan txadon (elexa) guztietan «toties quoties au da; ikertaldi bakotxean, nekaska osoa, il eta bizientzat, irabazten da; Agofila'ko lenengo eguneko eguerdiko amabietatik, urango eguneko gaberdiraño. Iru-gaŕen Gopatza'koak (Ordenakoak) euren txadon kapila agiri, eta alan ezik, eriko elextan irabazi leye. Gotzañak nekazkau irabasteko txadonak izentau, ta baita urango igandera aldatu dagikie. Gauza yakiñak diran ezkerro eurotzaz diran legeak ez goaz azaltzen, edeskiau ba, labura ta guztiak ulertzekoa izan daiteela gura dogu.

Porziunkula'ko nekazka irabasteko baldintzak dira: *Autortu, Jaunartu, Elexa ikertu*, ta Aita santuaren asmu-aldez otoitz egitea.

1.^a — Autorkuntza (Konpesiñoa); autorrentzulariak besterik agindu ezik, zortzi egun baruan egitea naiko da. (1914'ko

Joñala'ko 23'an.) Zortzi egun baruan autor-
terik eztauke egunero edo ia egunero
jaunartzen dabenak, ezta astero autoñtzen
diranak be. (1906'ko Otsala'ko 14'an ta
1885'ko Epañ'ko 12'an). Nekazka irabas-
ten dan txadonan autortu beañik eztago.
Autorkuntza txañ ezta gauza.

2.^a—Jaunartzea nekazka irabasteko zor-
tzi egunen baruan egin leike. (Cod.-Can.
c. 931). Edozein elexatan jaunartu dagike.
Igandera aldatzen danean, egun bietan
ezinleike irabazi.

3.^a—Ikertaldia (bisitea) beañekoa da
«toties quoties» nekazka irabazi gura dan
bakotxean, ta irabazteko urten eta bañiro
sartu beañ da. Elexara sartu ezin leiteke-
nean toki uñenetik irabazi dagike. (S. Lig.
6'n idaztñan, 534 ta 538 zenbakian).

Gaxoak eta abar ezin irabazi leye ne-
nekazkau Elexa ikertu barik, beste otoi
batzuk eginda, (Beringer. 1 - 99'an ing).
Kistar guztiak Irugañen Gopatx (ordena-
koen) elexetan irabazi leikie. Autorkuntza
ta ikertaldiaren auñetik nai ostean egin da-
gikez, bata besteen auñetik egitea beañekoa
ez da-ta, naiko da azkenengo egiñena Jau-

na'ren eskaíean egitea.

4.^a—Otoyak norberak gura dauzanak, baña gogozko otoy ez da naikoa. (1888' ko Iraia'ko 13'n). Zearo naiko da «Aita gurea» baña onu emoten da sei «Aita gure» zko ikertaldiak egiteko. Norberagaitk, il-aldez edo Aita santu aldez otoi egiteko zerbait gogo eukitea naiko da. Oben ari-ñaganako naikuna eukitea nekazka osoa irabasteko eragozpena da; ez baña zati bat irabasteko. Oben astuna daukienak Garbitokiko gogoentzat irabazi dagikela diñoenen eretxiak ziyo onak daukozan ezkerro, Garbitokiko gogoentzat nekazka asko irabasten arduratu bear gara. Otoyak nai-ta-ez egin bear diranak ez dabe izan bear; baña irabazi legi autor-entzuleen oben-neke (penitenzia) ta obenpean barik aginduta daukaguzan otoyak eginda. (1901'ko Bagila 14'n.) Minge-goñak otoi egin beara bete dagikie besteenakaz bat eginda. Porziunkula'ko txadonan bertan, jaunartza ta otoyak be ez dira beaíekoak.

¡NEURE JAUNGOIKUA TA GAUZA GUSTIAK!

Nekazka norberaganduteko ofoya.

Jesu-Kisto neure Jaun eta Jaungoikoa, Irazale ta Eroslea, Zeu zareana zarelako ta maite zaitudalako Zeure aurrean auzpaztuta, damu naz Zeu iraindu zaitudalako. Biotz guztiaz gurtzen zaitut ta apal - apal neure obenak parkatu dagistazuzala eskatzen dautzut. Zeure odol edera neu erostearen isuritean euki zeunstan erukia-gaitik, zeure erukortasunari eskatzen dautsot neure oben guztien azkepena (parkaziñoa). Pantzezka deunari agindu zeuntsan lez Doipuruaren asmuakaitik otoi dagit, Eleiz Ama'ren gorespenagaitik, ziñistearen zabalkuntzagaitik, agintari kistaren artean bakea izan dedin, zingeak eta ziñausleak bideratu daitezcan, obendio guztiakaitik eta batez bere zeure Eleiz maitearen kaltez dabilzazanakaitik. Gure Doipurua, zeure Ordelaria, zaindu egizu, bere etsayak guztiak garaituteko eskaña egiozu, bialdu egiozu zeure laguntza ziñeste eta Erlejiño katolikoan alde z diarduen Batzar guztiari, ta lagundu egiskuzu guztioi zeure eskañaz.

Ta zuk, Ama Neskutz garbia ta Jaungoiko'aren Ama, indartu egizu geure eskaria, ta egizu zeure Semea atsegindu dayela. Pantzezka geure Aita, Josu ta Maria'k ain maite zaituena, eroan egioezu neure eskariau ta esan nigaz efukitu daitela zeure semea nazalako. Josu ta Maria'k entzungo dautzue ta ni azke izango naz neure oben-nekeetatik. Olantxe.

Porziunkula'ko Nekazka illen bategaitik irabasteko ofoya

Josu-kisto neure Jauna, gogoak maite dozuzana, zeure azkengabeko efukitasunagaitik gure Aita Pantzezka deunari nekazka osoa egun onetan txadonau iker-tzen dabenari agindu zeuntsana, ni oben-dio efukaria, neure ezer-eza ezagututa, Zeure odol garbiaren irabazietan neure uste osoa ipiñita, ikertaldi onetan irabasten dodan nekazka urlia gogoentzat izatea gura dot, ta bear izanik ezpa-dau, (Izena) deunari eraskun geyen euki dautsanentzat izan daitela gura dot, ta eskatzen dautzut bere obenakaitik zeure zu-

zendasunari ordaindu bear dautson zofa
parkatu dayozula, ta zeruko ateak edegi
dayozuzala, Zeure aintzaren aldele (parti-
cipante) eginda. Auxe eskatzen dautzut.
Olantxe.

*(Gero aozko otoien bat egingo da
Doipuruaren asmuakaitik).*

L. D. M. J. F.

